## 02. Hirigintza-teoriaren hastapena

1. Sarrera. Hirigintza disziplina berria da: XIX. mendean jaio eta XX. mendean teorikoki garatu da. Gaur egun hiriaren inguruan ari dira geografoak, soziologoak, arkitektoak, ingeniariak, historialariak, filosofoak, idazleak eta gainontzeko artistak. Hirigintzako bibliografia ugaria gertutik jarraitzea ia ezinezkoa da.
2. Hirigintzaren definizioak:
    - *Hirigileen Kontseilu Europearra*ren ustez: "Hirigintza eta lurraldearen antolakuntzak lurzoruaren garapen eta erabilerarekin erlazionatutako jarduera guztiak barnean hartzen dituzte. Hirigintzak espazio-maila edo eskala guztietan dihardu: tokian, aldirian, metropolian, eskualdean, nazioan eta eskala internazionalean. Hirigintza lurzoruaren garapenaren sustapen, hobetze eta kontrolaz arduratzen da, guztien ongiaren mesedetan, baina gizabanakoaren eskubideak errespetatuz. Etorkizunerako aurreikuspenak egiten ditu, aldaketa fisikoa eta soziala proiektatuz. Hiri-plangintza ez da independientea, sektore pribatua nola publikoarekin lan egiten baitu".
    - Harluxet hiztegi entziklopedikoaren arabera: *Urbanizatu*: Artifizialki mugaturiko lur-saila bizitegi-nukleo bihurtu, bertan kaleak, estolderia, kanalizazio elektrikoa, lorategiak, etab. eginez. *Hirigintza*: Hiri-plangintza, hiriak biztanleen beharretara egokitzeko bitartekoen multzoa; delako plangintza eta bitartekoen azterketa. Hirigintza hiri idealaren eredua aurkitzea bada, hiria bera bezain zaharra da. (…)
    - Hortaz: *Urbanizatu*: Lurraldea hiri bihurtu; lurraldea eraiki. *Hirigintza*: Lurraldearen eraikuntza.
3. Hiriaren 3 dimentsioak: Urbs, civitas eta polis, hirurak batera. Greziarren eta erromatarren kontzeptuak.
    - Urbs: Errealitate fisikoa. Espazio eraikia.
    - Civitas: Gizarte-errealitatea. Hiritarrak, hirietako egoileak.
    - Polis: Errealitate politiko-administratiboa. Udalerritik eremu metropolitarrera.
4. Hirigintzaren 3 tradizio edo ikuspegi nagusiak:
    - Ikuspegi estetiko eta artistikoa: Morfologismoa. Hirigintza forma-arazo gisa. "HIRIGINTZA ARTEA DA". Pizkundean eta Barrokoan garatutako ikuspegia (betidanik egon bada ere). Adibideak: Palmanova, 1593-1623an sortua; Domenico Fontana arkitektoak hiribide zabalak irekitzen ditu Erroman, monumentu nagusiak lotuz eta obeliskoak ezarriz, Sixto V aita saintuaren aginduz, 1590; Eraberritze pizkundetarra Parisen, Enrique IV, Luis XIII, Luis XIV eta Luis XVak sustatua (~1590-1790); Leon eta Rob Krier, Benta Berrirako plangintza, 1990.
    - Ikuspegi zientifiko eta teknikoa: Funtzionalismoa. Hirigintza zentzuzko jokaera gisa. "HIRIGINTZA ZIENTZIA DA". XIX. mendean garatutako ikuspegia. Adibideak: Haussmann prefektoa Parisen, 1851-1870; Ildefons Cerdaren Bartzelonako zabalgunea, 1859; Walter Gropius eta Le Corbusierren ikerketak, 1922-1930 inguruan.
    - Ikuspegi filosofiko eta politikoa: Utopismoa. Hirigintza gizarte-aldaketaren bitarteko gisa. "HIRIGINTZA PENTSAERA DA". XIX. mendean garatutako ikuspegia. Adibideak: Robert Owenen Lanark (Eskozia) eta Harmony hiriak (azken hau 1.200 pertsonarako pentsatua, 500 Ha-tan, 2.200 x 2.200 m), 1817-1825; Charles Fourierren falansterioa (1.620 pertsona 250 hektareatan, 1.500 x 1.500 metroko plaza), 1841; Andre Godinen Guiseko (Frantzia) familisterioa edo "Gizarte-jauregia", 18 Ha, 350 biztanle,1860-1880.